

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

GIZA BALIABIDEEN SAILA

Tokiko Gobernu Batzarrak Gasteizko Udaltzaingo Zerbitzuko barne sustapenerako eskaintza bost ofizialorde (8009 lanpostu kodea) lanpostutan handitzea onetsi zuen

2022ko maiatzaren 6an egindako bilkuran, Tokiko Gobernu Batzarrak Gasteizko Udaltzaingo Zerbitzuko barne sustapenerako eskaintza bost ofizialorde (8009 lanpostu kodea) lanpostutan handitzea onetsi zuen.

Gasteizko Udalak, agintaldi honetarako helburuen artean, Aurrekontu Orokorren Legeak baimendutako sustapen eta enplegu eskaintza publikora deitzea proposatzen du, udal egitura sendotzeko eta udalaren zerbitzura dauden langileen administrazio karrera sustatzeko neurri gisa.

Une honetan, 5 ofizialorde lanpostuko barne-sustapeneko eskaintza bideratzen ari da. Eskaintza hori Gobernu Batzordeak onartu zuen 2020ko uztailaren 10ean, eta ALHAOn argitaratu zen 2020ko uztailaren 31n. Eskaintza onartu zenetik gaur egun arte, bost lanpostu huts sortu dira Udalaren lanpostuen zerrendan, erretiroen eta behin betiko baje onorioz.

Antolaketa-zerbitzuko arduradunak emandako txostenaren arabera, apirilaren 1ean ofizialordearen bost lanpostu huts zeuden, horietako hiru derrigortasun-data iraungita zutelarik, eta barne-sustapena zabaltzea proposatu zen, zeina gauzatze-fasean baitago. Sustapena handitzeak ez du birjartze-tasarik sortzen, barne-sustapeneko deialdia delako.

Sortzen diren lanpostu hutsak gehitzea jasota dago deialdiaren oinarrietan. Oinarri horiek Giza Baliabideen zinegotzi ordezkariaren 2020ko urriaren 21eko ebazpenaren bidez onartu ziren, eta 2020ko azaroaren 11n argitaratu ziren ALHAOn, 128. zenbakikoan.

Kontuan izan da Enplegatutako Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren 16. artikulua — apirilaren 13ko 7/2007 Legea — xedatzen duenez, karrerako funtzionarioek lanbide-sustapena izateko eskubidea dutela, eta 18. artikuluan ezarritakoaren arabera barne-sustapena egiteko hautatze-prozesuetan berdintasun-, merezimendu- eta gaitasun-printzipio konstituzionalak errespetatuko direla, baita aipatutako legearen 55.2 artikuluan aurreikusitakoak ere.

Kontuan izan da 6/1989 Legearen 69.2.c artikuluan adierazten dela funtzionarioek administrazio-karrerarako eta barne-sustapenerako eskubidea izango dutela. Halaber, arau horrek xedatzen du hornikuntza- eta sustapen-eskaintzak dagokien lurralde historikoaren aldizkari ofizialean argitaratuko direla, foru-aldundietarako edo toki-korporazioetarakoak direnean.

Bestalde, Enplegatutako Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren 37.2 artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriz, jakinarazpena igorri zaio Udal honetako Langileen Batzordeari, 2022ko apirilaren 6an.

Era berean, zabaltze horren aldeko txosten juridikoa, ekonomikoa eta Kontu-hartzailetza Nagusiarena egin da.

Beraz, aurreko paragrafoetan adierazitakoa kontuan izanik, eta Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legeak —abenduaren 16ko 57/2003 Legeak aldatua— 127. artikuluan aitortzen dizkidan eskumenez baliatuz, eta 2019ko ekainaren 21eko erabakiaren bitartez Giza Baliabideen arloko zinegotziaren esku utzitako aginpidea betez, Giza Baliabideen Arloko zinegotzi ordezkariak erabaki proposamen hau aurkezten dio Tokiko Gobernu Batzarrari:

Erabaki-proposamena

Lehen. Gasteizko Udaltzaingo Zerbitzuan ofizialorde izateko barne-sustapenerako 5 lanposturen eskaintza handitzea onestea (8009 lanpostu kodea), jarraian adierazten den moduan:

LANPOSTUAREN KODEA	LANPOSTUAREN DESKRIBAPENA	MATRIKULA	PLAZA MOTA	DEDIKAZIO	HIZKUNTZA ESKAKIZUNA	DERRIGORTASUN-DATA
8009	Udaltzaingoko Ofizialordea	357	R*	113	2	
8009	Udaltzaingoko Ofizialordea	359	R*	113	2	
8009	Udaltzaingoko Ofizialordea	7298	R*	113	2	2007/04/01
8009	Udaltzaingoko Ofizialordea	8728	R*	113	2	2013/01/31
8009	Udaltzaingoko Ofizialordea	8729	R*	113	2	2013/01/31

R*: Lanpostuen zerrendeko plaza.

Bigarrena. Barne-eskaintza handitzeko iragarki hau ALHAOn argitaratzea.

Hirugarrena. Erabaki honek administrazio-bidea agortzen du, eta berorren kontra administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, zuzenean, Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazten den egunaren biharamunetik, edo, aukeran, berraztertze errekurtsoa, erabakia hartu duen organo berari zuzendua, hilabeteko epean, jakinarazte-egunaren biharamunetik; horren berariazko ebazpenaren kontra, berriz, bi hilabeteko epean aurkeztu ahal izango du administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, errekurtsoa ezesten duen ebazpena jakinarazten den egunaren biharamunetik.

Vitoria-Gasteizen, 2022ko apirilaren 25ean

Giza Baliabideen Saileko zinegotzi ordezkaria
IÑAKI GURTUBAI ARTETXE